bat
Soziolinguistika
aldizkaria

HIZKUNTZA EREDUAK IKASTOLEN IKUSPEGITIK

Xabier Garagorri
EHU/UPVko irakaslea eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko aholkulari pedagogikoa
Helbide elektronikoa: xabierga@ehik.ikastola.net

Errealitateak aurpegi asko dituela esaten da eta egia da. Hizkuntza ereduen proposamena EAEko hezkuntza sistema osoa euskalduntzeko asmoz sortu zen. Neuk ikastolen esparrutik bizi izan dudan esperientzian oinarrituz, neure ikuspegia azalduko dut.

IKASTOLEN KRISIALDIA

Ikastoletan euskarazko irakaskuntza elebakarra ematen hasi ziren eta hasieretan ia haur guztiak euskal hiztunak ziren. Hirurogeita hamarreko hamarkadan hazkunde prozesu izugarria gertatu zen[1]. Eremu erdaldunetan ikastola berriak sortu ziren eta eremu euskaldunetan euskaraz ez zekien ikasle kopurua gero eta handiagoa zen. Euskaraz irakasteko sortu ziren ikastola haietako ikasleen guraso askok ez zekien euskaraz[2]. Aldaketa sakona gertatu zen, ez bakarrik ikasle kopurua handitzen zelako, baizik batez ere ikastolaren eginkizuna aldatzen zelako; hau da, sorrerako eginkizuna jatorriz euskaldunei "euskaraz" irakastea baldin bazen, geroztik, jatorriz erdaldunei "euskara" eta "euskaraz" irakastea ere eransten zaiolako. Lehendik nahikoa lan ematen bazuen euskaraz zekitenei "euskaraz" irakasteak, kontuan hartuz horretarako beharrezkoa zen giza

eta material azpiegitura guztia ia hutsetik sortzen ari zela, ondoren erronka berri eta zail bati aurre egin behar izan zitzaion: jatorriz erdaldunak ziren ikasleei "euskara eta euskaraz" erakustea.

Egoera horrek estuasun larriak sortzen zituen:

- Haur euskaldunak eta erdaldunak gela berean nahastuz, zenbat eta erdaldun gehiago, orduan eta gelako giroa erdaldunagoa, eta, ondorioz, haur euskaldunen euskararen kalitatea kaskartzen zela ikusten zen.
- Era berean, haur erdaldunentzat euskara hutsez ikastea ez ote zen maila akademikorako eta garapen pertsonalerako kaltegarria izango kezka zegoen.

Zer egin horren aurrean? Ikastola batzuetan —ez askotan— jatorriz erdaldunen sarrera mugatzea erabaki zen. Erabaki hori ez zen eztabaidarik gabe gertatu, jakina. Nola uler zitekeen ikastolek, hau da, euskarari eta euskal kulturari eusteko eta zabaltzeko sortu ziren eskolek, inori ateak ixtea? Erabaki hori —gogoratzen dut— "diskriminatzailea" zela argudiatzen zen, ikastola "elite" baten eskola bihurtzea, "bi komunitateen" arteko zubiak haustea. Argudio gogorrak ziren horiek. Beste ikastola batzuetan, euskaraz ikasteko zailtasunak zituzten ikasleei, bereziki OHOko goi zikloan (6., 7., eta 8.mailak), gaztelaniaz erakusten zitzaien. Erabaki hori, ikasle horiei begira irteera bat izan zitekeen, baina ikastolaren euskalduntze jomugaren aurka zihoan. Ikastola gehienetan, arazoaren kontzientzia argia eta noraeza ziren nagusi. Ikastolaren eta irakasleen bihotzeko nahia haur erdaldunei euskara irakastea eta euskaraz heztea zen, baina praktikan, zenbaitetan, ez zen hori lortzen. Zer egin egoera horren aurrean?

Zer egin horren aurrean? Ikastola batzuetan –ez askotan– jatorriz erdaldunen sarrera mugatzea erabaki zen. Erabaki hori ez zen eztabaidarik gabe gertatu, jakina. Nola uler zitekeen ikastolek, hau da, euskarari eta euskal kulturari eusteko eta zabaltzeko sortu ziren eskolek, inori ateak ixtea? Erabaki hori –gogoratzen dut- "diskriminatzailea" zela argudiatzen zen, ikastola "elite" baten eskola bihurtzea, "bi komunitateen" arteko zubiak haustea. Argudio gogorrak ziren horiek.

HIZKUNTZA EREDUEN PLANTEAMENDUA ETA HORREN BALORAZIOA

Giro horretan egosten da hizkuntza ereduen proposamena. Euskara irakasteko ez ezik euskaraz irakasteko ere ahalbidea arautzen hasi zen lehen dekretua eta agindua Espainiako Gobernuak onartu zuen 1979an3 eta, araudi horren babesean, Eusko Kontseilu Nagusiko teknikariek, Espainiako Hezkuntza Ministeritzak plazaratuko zuen hizkuntza ereduen lehen proposamena egin zuten[4]. EAEko eskola guztietan pentsatuz, ikastolak barne, egin zen hizkuntza ereduen planteamenduak izan zuen bere bilakaera eta hausnarketa prozesua. Neuk horren irakurketa ikastolen esparruan bizi izan dudan esperientzian oinarrituz eta ikuspegitik egingo dut.

Ikastoletan, lehen esan bezala, arazo handiak sortzen ziren haur erdaldunei euskara eta euskaraz irakasteko eta erronka berriei erantzuteko orduan. Irteera baten premia zegoen. Ikastolek bazuten bereganatutako kultura pedagogikoa: adibidez, Elbira Zipitriaren eskolaren bidez jasotakoa, Gordailu eta beste iturri batzuetatik jasotako Freinet-en ere-

Ikastolari egiten zitzaion kritika zen, ikastola mugimenduaren sorrerako eredu linguistikoa aplikatzen jarraitzen zuela, haur guztien lehen hizkuntza euskara bailitzan alegia. Eta nahiz eta "euskaraz" irakasteko eskola izatetik, "euskara" irakasteko ere eskola izatera pasatzea funtsezko aldaketa kualitatiboa izan, ez zela, inertzia historiko baten poderioz, inolako metodologia aldaketarik egin. Psikolinguistikaren izenean ere entzuten ziren kritikak, hau da, haurraren garapenean ama hizkuntzak duen garrantzia eta hizkuntza hori ez errespetatzeak dakartzan trauma psikologikoak eta eskola atzerapen arriskuak ez zirela kontuan hartzen alegia.

dua, Saiokaren bidez jasotako Piaget-en erreferentziak, etab. Glotodidaktikaren esparruan, aldiz, hutsune handia zegoen. Eusko Kontseilu Nagusiko teknikarien meritua izan zen hutsune hori betetzeko egindako ahaleginetan aitzindari izatearena. Soziolinguistikaren izenean eta beste herrialdeetan (Kanada, Katalunia) egiten ari ziren esperientzietan oinarrituz, kritika zorrotzak egiten zaizkio ikastoletako eredu "irredentistari"[5]. Ikastolari egiten zitzaion kritika zen, ikastola mugimenduaren sorrerako eredu linguistikoa aplikatzen jarraitzen zuela, haur guztien lehen hizkuntza euskara bailitzan alegia. Eta nahiz eta "euskaraz" irakasteko eskola izatetik, "euskara" irakasteko ere eskola izatera pasatzea funtsezko aldaketa kualitatiboa izan, ez zela, inertzia historiko baten poderioz, inolako metodologia aldaketarik egin. Psikolinguistikaren izenean ere entzuten ziren kritikak, hau da, haurraren garapenean ama hizkuntzak duen garrantzia eta hizkuntza hori ez errespetatzeak dakartzan trauma psikologikoak eta eskola atzerapen arriskuak ez zirela kontuan hartzen alegia.

Planteamendu teoriko honen ondorioz, haur erdaldunekin irakaskuntza elebakarretik elebidunera, irredentismotik kulturbitasunera, pasatzea proposatzen zen. Haurra eskolaurretik hasita bere lehen hizkuntzan hartuz eta pixkanaka, prozesu baten bidez, bigarren hizkuntzan —euskaran— txertatzea. Prozesu hori ezin izan zitekeen berdina egoera guztietan, malgua baizik, hizkuntzaren programazioa haurraren errealitatera egokituz eta horretarako, besteak beste, aldagai hauek kontuan hartuz: haurraren familia hizkuntza, eskola inguruko hizkuntza egoera, euskararen beraren egoera, irakasleen prestakuntza, euskarekiko gurasoen jarrera. Honen guztiaren ondorio praktikoa, haur bakoitzaren egoerari egokitu zitzaion hizkuntza eredu desberdinak proposatzea izan zen.

Ikastoletako praktikari buruz egindako kritika mingarria izan zitekeen, baina nire iritziz oso mesedegarria izan zen astindu hori, praktikari buruzko barne-hausnarketa kritikoa egitera eta hobetzeko bideak bilatzera eraman gintuelako. Hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak egoki bideratzeko, praktika eta boluntarismo itsutik, baldintza soziolinguistikoak, psikolinguistikoak, eta didaktikoak kontuan hartu behar zirela jabetu ginen. Hori da, nire iritziz, hizkuntza ereduen inguruko ekarpenik garrantzitsuena: egoeraren diagnostiko kritikoa egitea eta hizkuntzaren ikuspegi teorikoak ezagutzeko beharra suspertzea. Eta horrekin batera, irakasleok, hizkuntza-kalitatea hobetzeko, hizkuntza-prestakuntza sakonagoa behar genuela jabetzea.

Hortik aurrera egindako hizkuntza ereduen formularen ekarpena ez zen, ikastolen kasuan bederen, egokiena. Formula horren bidez, hizkuntza eredu desberdinen izenean, praktikan, hezkuntza eredu desberdinak gauzatzeko bidea irekitzen zen. Hezkuntzaren eta curriculumaren funtzio nagusi bat gizarteratzea eta proiektu komuna sortzea bada, hizkuntza ereduen formulak ez zuela horretan gehiegi lagunduko iruditzen zitzaigun[6]. Geroztik emandako pausoek bermatu dute aurreikuspen hori, izan ere eskolak A-B-D ereduetan sailkatu dira, gurasoak, ikasleak, eta irakasleak hizkuntza jato-

rriaren arabera bereiziz, edota dirulaguntzak hizkuntza ereduaren arabera banatuz. Ikas materialak ere irizpide horren arabera bereizi dira.

Ikastoletan, ondorio administratiboetara egokitzeko D eta B ereduen terminologia erabili dugu, baina praktikan ez dugu B eredu ofiziala aplikatu[7]. Helburua, jatorriz euskaldunak eta erdaldunak diren haurrak, bakoitza bere bidetik paraleloan joan beharrean, lehenbailehen baldintza berdintsuetan elkarrekin euskaraz ikasten jarraitu ahal izatea zen eta horretarako eskolaurre etaparako "Haurtxoa" proiektua sortzen hasi ginen 1982an. Proiektu honetarako sortutako ikas materialetan ez dira bereizten D eta B ereduak, jatorriz euskaldunentzat eta erdaldunentzat bi hizkuntz programa baizik. Euskara denboraldi intentsiboan ikasteko (egunean 30-45 minutu), bi hizkuntza programa bereizten dira (jatorriz euskaldunentzat eta jatorriz erdaldunentzat), baina denboraldi estentsiborako, hau da, euskara eta esperientzia eremuak edo arloak euskaraz ikasteko ez dago beste inolako bereizketarik jatorriz euskaldunen eta erdaldunen artean. Erritmo desberdinetan, baina dena euskaraz egiten dute.

"Haurtxoa" proiektuko esperimentazio faseak bost ikasturte iraun zuen (1986-87/1990-91) eta prozesu horren bukaeran ikasleen ebaluazioa egin zen ikasleen emaitzak oro har, eta bereziki jatorriz euskaldunen eta erdaldunen emaitzak zein ziren jakiteko. 1990-91. ikasturtean, 110 eskola eta 5 urtekoen 486 gela ziren guztira, gehienak ikastolak (% 78), baina bata eskola publikoak (% 18) eta pribatuak ere (% 4). Ikasle horien gurasoen euskararen ezagutza bikote gisa hartuz, hauxe zen: biak euskaldunak (% 35), ama euskalduna eta aita erdalduna (% 9), aita euskalduna eta ama erdalduna (% 14), biak erdaldunak (% 42). Egindako ebaluazioaren zehaztasunak gai horri buruz neuk egindako tesi doktoralean jasota daude[8], baina laburtuz esan daiteke bi gurasoak erdaldunak dituzten ikasleek, hiru ikasturte euskaran murgilduz, bi gurasoak euskaldunak dituzten semeek bezain emaitza onak lortzen dituztela ikaslearen garapen afektiboa neurtzeko autokontzeptu eskalan, ikaslearen gorputzaren garapena neurtzeko psikomotrizitate probetan, adimenaren eta hizkuntzaren garapena neurtzeko oinarrizko kontzeptuetan, eta ikasleen logika eta aritmetika konpetentziak neurtzeko prozedura matematikoetan. Euskarako probetan badaude aldeak "Haurtxoa" proiektua jarraitu zuten jatorriz euskaldunen eta erdaldunen artean, mintzameneko eta hizkuntzaren zuzentasuna neurtzeko gramatika probetan bereziki[9], baina jatorriz erdaldunen emaitza horiek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak D eta B ereduko 5-6 urteko ikasleen mintzamena neurtzeko prestatutako (1987) PIR 5 probako emaitzekin alderatuz, "Haurtxoa" proiektua jarraitu zuten guraso erdaldunen ikasleen emaitza, asko inguratzen da D eredukoen emaitzetara eta B eredukoek baino askoz ere emaitza hobeak lortzen dituzte[10].

"Haurtxoa" proiektuko esperientziaren eta ebaluazioaren bidez egiaztatu genuen, batetik, jatorriz erdaldunak diren haurrei ez diela inolako trauma psikologorik ezta eskola atzerapenik ere eragiten euskaraz ikas-

Ikastoletako praktikari buruz egindako kritika mingarria izan zitekeen, baina nire iritziz oso mesedegarria izan zen astindu hori, praktikari buruzko barne-hausnarketa kritikoa egitera eta hobetzeko bideak bilatzera eraman gintuelako. Hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak egoki bideratzeko, praktika eta boluntarismo itsutik, baldintza soziolinguistikoak, psikolinguistikoak, eta didaktikoak kontuan hartu behar zirela jabetu ginen. Hori da, nire iritziz, hizkuntza ereduen inguruko ekarpenik garrantzitsuena.

Helburua, jatorriz euskaldunak eta erdaldunak diren haurrak, bakoitza bere bidetik paraleloan joan beharrean, lehenbailehen baldintza berdintsuetan elkarrekin euskaraz ikasten jarraitu ahal izatea zen eta horretarako eskolaurre etaparako "Haurtxoa" proiektua sortzen hasi ginen 1982an. Proiektu honetarako sortutako ikas materialetan ez dira bereizten D eta B ereduak, jatorriz euskaldunentzat eta erdaldunentzat bi hizkuntz programa baizik.

teak; eta, bestetik, B eredua baino askoz ere eraginkorragoa dela euskaraz ikasteko murgilpen osoko D eredua. Bestetik, ez dagoela eskoletan bide paraleloak bultzatzeko beharrik.

ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERA

1990eko hamarkadaren hasieran, beste pauso garrantzitsu bat ematen hasten gara ikastolen esparruan: elebitasunaren planteamendutik eleaniztasunaren planteamendura egiten dugun jauzia hain zuzen ere. Eleaniztasunaren planteamenduak ez du ordurarteko elebitasunaren planteamendua ukatzen, osatzen baizik. Elebitasunaren planteamenduaren helburua, ikastolen ikuspegitik, euskara hizkuntza nagusia izanik, gaztelania (Hegoaldean) edo frantsesa (Iparraldean), bi hizkuntzak ondo ezagutzeko eta erabiltzeko gaitasuna lortzea baldin bazen, ordutik aurrera, elebitasunaren planteamendua mantenduz, atzerriko hizkuntzen ezagutza eta erabilera gehitzea izan zen eleaniztasunaren helburu.

Zerk eraginda hasi ginen ikastoletan berrikuntza hau egiten? Erabaki hori hartzerakoan, funtsean, hiru arrazoi izan genituen kontuan. Batetik, Europako Elkarteko esparru ekonomikoaren, politikoaren, eta soziokulturalaren integrazioa eta horrek europar gizabanakoengan zuen eta izango zuen eragina. Europan bizitzeko eta bertan integratzeko, euskaraz eta gaztelaniaz aparte, euskaldunok beste europar hizkuntzak menderatzea beharrezkoa dugu. Bestetik, elebitasunaren planteamendu ofiziala, oro har, aurreko egoerarekiko aurrerapausoa izanik ere, planteamendu horri mugak ikusten genizkion, ezinezkoa baita gaztelania edo frantsesa bezalako estatus internazionaleko hizkuntzak, egoera minorizatuan dagoen euskararekin batera, bata bestearen ondoan, egoera orekatuan bizitzea. Euskarak, iraungo badu, bere hizkuntza eremuan hizkuntza nagusi izatera iritsi behar du, baina, era berean, euskaldunok euskaraz aparte beste hizkuntzak erabiltzeko gauza izan behar dugu, bestela euskara bera ere arriskuan bailegoke. Lortu nahi genuena, beraz, bi elementu hauek uztartzea zen, hots: alde batetik, euskarak bere hizkuntza eremuan behar duen garapen osoa lortzea eta, bestetik, beste hizkuntzen ezagutza eta erabilera erdiestea. Hori lortzeko era bakarra eleaniztasunaren eskutik dator. Eta azkenik, baina ez azkena, eleaniztun izateak, dituen abantaila instrumental, profesional, eta, batez ere, sozialaz gainera, baditu, adituen ustez, gizabanakoaren garapenari begira beste abantaila batzuk: pentsaera kreatiboagoa eta adimenaren malgutasun handiagoa erdiesten da, komunikatzeko eta harremanetarako gaitasun gehiago lortzen da, hizkuntza gehiago ikasteko erraztasuna lortzen da.

Ingelesaren irakaskuntza goiztiarraren esperientzia 1991-92 ikasturtean 8 ikastolekin hasi zen eta urtero ikastola berriak sartzen joan ziren. Une honetan, Iparraldeko ikastolak izan ezik, beste guztiak eleaniztasunaren bidetik doaz. Elebitasunaren planteamendutik eleaniztasunera

aldatzeak, normala den bezala, berrikuntzari buruzko kezka sortu zuen. Kezkarik nagusiena zen ez ote zuen hizkuntzen nahasketa ekarriko eta ez ote zen euskararentzat kaltegarria izango. Kezka horiek argitzeko era bakarra ikasleen emaitzak ebaluatzea zen eta horixe egin da proiektuan 1991-92an lau urterekin hasi ziren ikasleak ebaluatuz, urtez-urte, 2002-03an derrigorrezko irakaskuntza bukatu arte.

Ikasle horien emaitzetan oinarrituz ondorio hauek atera ditugu[11]:

a) Ingelesari dagokionez, derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatzerakoan, Ikasleen % 69,7k Trinity Collegeko ESOL, mintzameneko proban, 7. maila gainditzen dute[12]. DBHko bigarren zikloan Gizarte Zientziak ingelesez ikasten dituzte eta lortutako emaitza akademikoak gutxienez euskaraz ikasten dutenenak bezain onak dira.

b) Euskarari dagokionez, ez dago alde esanguratsurik, emaitza globaletan, eleaniztasun planteamendua jarraitu duten talde esperimentalaren eta kontrol taldearen artean, nahiz eta ahozko ekoizpenean talde esperimentalaren emaitzak modu esanguratsuan hobeak izan.

c) Gaztelaniari eta adimenenaren gaitasunei buruz ez dago alde esanguratsurik talde esperimentalaren eta kontrol taldeen artean.

d) DBHko 2. zikloan Gizarte Zientziak ingelesez ikasi duten ikasleek, euskaraz ikasi dutenek bezainbesteko emaitza akademikoak lortu dituzte eta ingelesez ikasitakoa euskaraz adierazteko gai dira[13].

Urte asko dira dagoenekoz eleaniztasun goiztiarraren planteamendua esperimentatzen hasi ginenetik, eta une honetan esan dezakegu, baldintza batzuk zainduz, elebitasunetik eleaniztasunera eman dugun pausoa onuragarria izan zaigula eta beste batzuentzat ere onuragarria izan daitekeela, baldin eta baldintza batzuk beti zaintzen badira[14].

AURRERA BEGIRA

Hizkuntza ereduen formularen inguruko eztabaidak ez du, nire iritziz, une honetan ikastolentzat inolako interesik. Ikastoletan, batetik, ez dugu jarraitu hizkuntza eredu ofizialen formula eta, bestetik, 1990. urtetik aurrera elebitasun planteamenduetatik eleaniztasunera pasatu gara, gure etorkizuna euskaldun eleaniztuna izatea dela uste dugulako. Erronka, beraz, euskaldun eleaniztunak lortzea da. Erronka horri aurre egiteko eman beharko liratekeen pausoak ematen hasiak gara, baina badugu bide horretan zer egina.▮

Laburtuz esan daiteke bi gurasoak erdaldunak dituzten ikasleek, hiru ikasturte euskaran murgilduz, bi gurasoak euskaldunak dituzten semeek bezain emaitza onak lortzen dituztela ikaslearen garapen afektiboa neurtzeko autokontzeptu eskalan, ikaslearen gorputzaren garapena neurtzeko psikomotrizitate probetan, adimenaren eta hizkuntzaren garapena neurtzeko oinarrizko kontzeptuetan, eta ikasleen logika eta aritmetika konpetentziak neurtzeko prozedura matematikoetan.

OHARRAK

1. 1970-71: 103 ikastola eta 11.885 ikasle /1980-81: 243 ikastola eta 65.273 ikasle

Ikus GARAGORRI, X. eta beste (1983): "Desarrollo y situación actual de la enseñanza en las ikasto-

"Haurtxoa" proiektuko esperientziaren eta ebaluazioaren bidez egiaztatu genuen, batetik, jatorriz erdaldunak diren haurrei ez diela inolako trauma psikologorik ezta eskola atzerapenik ere eragiten euskaraz ikasteak; eta, bestetik, B eredua baino askoz ere eraginkorragoa dela euskaraz ikasteko murgilpen osoko D eredua. Bestetik, ez dagoela eskoletan bide paraleloak bultzatzeko beharrik.

las" In *Lenguas y Educación en el ámbito del estado español.* Miguel Siguán ed., Ediciones de la Universidad de Barcelona.

2. Araba, ez dakite euskaraz (aitak % 81,5, amak % 83)

Bizkaia, ez dakite euskaraz (aitak % 44, amak % 48)

Gipuzkoa, ez dakite euskaraz (aitak % 24, amak % 24)

Nafarroa, ez dakite euskaraz (aitak % 73, amak % 48)

Ikus SIADECO (1977): *Estudio socio-lingüístico del euskara. Las Ikastolas en el País Vasco.* Tomo 8.

3. 1949/1979 apirilaren 20ko Errege Dekretua eta 1979 abuztuaren 3ko Agindua

4. M.E.C. (1979): *El lenguaje en la educación preescolar y ciclo preparatorio: vasco-castellano.* Ministerio de Educación y Ciencia, Madrid.

Argitalpen honetan A-B-C-D hizkuntza ereduak bereizten dira eta EAEko Eusko Kontseilu Nagusiak, 1979-80. ikasturteko eskolaurrerako programazioa egiteko, liburu hau oinarritzat hartzea gomendatzen du. Euskal Herrirako Autonomia Estatutua onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 1981-82. ikasturterako plazaratu zuen zirkularrean A-B-D ereduak aipatzen ditu. Geroztik, 1982ko Euskararen Erabilera Arautzeko Oinarrizko Legearen garapen modura plazaratzen den Irakaskuntza ez unibertsitarioan Hizkuntza Ofizialen Erabilera arautzen duen Dekretuan (1983ko uztailaren 13koa), A-B-D ereduak finkatzen dira.

5. "Zenbaiteraino zaigu zilegi, estrategi mailan aukeratu dugun irredentismoa (hizkuntzaren normalizazioa), hic et nunc, taktika mailara eramatea modu orokor batez, eta hizkuntzaren programaketaren presupostu ukaezina bailitzan onhartzea?

Gure kasuan eta ikastolen elebitasunari dagokionez, irredentismo hau ez ote da itsu eta iluntasun emaile?

Zenbateraino normaliza daiteke praktikan eskola-hizkuntza (ez naiz ari textuetaz), hizkuntzarena berarena lortu baino lehen?

Ez ote gara boluntarismo itsu batean ari, ezinaren kontra burukakak emanaz, gauzak konpondu beharrean problemak metatzen?

Ikus LASA, M. (1978): "Euskal Herriko irakaskuntza elebiduna antolatzeko oinharrizko ideia batzu". *Jakin 7,* Tolosa, 47-60 or.

6. "Guk D eta B irakastereduen hezkuntza praktikan egiaztatzen dugunez, zenbait B eredu ulertzeko erarekin, ez guztiekin, bata bestearekin aurkitzeko abagunerik ez duten bi bide paralelo daudeneko egoera sendotzen ari da eta hizkuntzaren eta kulturaren aldetik bi komunitate diferentziaturen sorrera bultzatzeko joera hartu du. Ohar hau, noski, oraindik bidezkoagoa gertatzen da A ereduaren kasuan ... Eta arazoa oso larria da, ze, bide paralelo horiekin eta hizkuntza emaitza eskasekin jarraitzen bada, eraman baitezake benetako etsipenera, eta, ondorioz, boomerangaren efektua sortu, belaunaldi berrien aldetik euskalduntzearen aurkako jarrerak probokatuz eta bi komunitateen bateratze bideak "de facto" ezinezkotuz"

Ikus GARAGORRI, X. (1989): "Haurtxoa proiektua, Curriculumeko eta antolamendu berrikuntzak bideratzeko estrategia baten azterketa". In P. Aierbe, X. Garagorri: *Hezkuntzaren berrikuntza eta Erreforma.* Euskal Herriko Unibertsitatea, ICE-HEZI, Bilbo, 229-262 or.

7. "B eredua: Bai gaztelania eta bai euskara, biak beste irakasgaiak lantzeko erabiliko diren hizkuntzak dira. Gaztelania, berez irakurketa-idazketa eta matematika bezalako irakasgaietarako erabiliko da. Euskara beste arloetako gaiak lantzeko: esperientziak, plastika eta dinamika bereziki. Euskara eta gaztelania irakasgai bezala ere landuko dira, astero eginkizun horri Hezkuntza eta Kultura Sailak erabaki dezan ordu-kopurua eskaini beharko zaiolarik"

Ikus, Irakaskuntza ez unibertsitarioan Hizkuntza Ofizialen Erabilera arautzen duen Dekretua, 1983ko uztailaren 11koa

8. GARAGORRI, X. (1995): *Haurtxoa proiektua: Haur Hezkuntzako bigarren zikloko berrikuntza proiektu baten ebaluazioa.* Tesi doktorala. Euskal Herriko Unibertsitatea.

9. PIR 5 mintzamena: aita eta ama euskaldunak = 43,11; aita eta ama erdaldunak = 36,35

Gramatika neurketa: aita eta ama euskaldunak = 16,08; aita eta ama erdaldunak =12,39

Hitz jariotasuna: aita eta ama euskaldunak = 11,61; aita eta ama erdaldunak = 10,44

Harreman kontzeptuala: aita eta ama euskaldunak =3,33; aita eta ama erdaldunak =3,34

Hitzen definizioa: aita eta ama euskaldunak = 21,68; aita eta ama erdaldunak =18,37

10. Eusko Jaurlaritzako laginaren araberako emaitzak: D eredua = 40,39; B eredua = 25,63

Haurtxoako guraso erdaldunen semeen emaitzak = 36,35

11. GARAGORRI, X. (2001): "Elehirutasun goiztiarra ikastoletan: hamar urteko prozesuaren ebaluazioa". In Etxeberria, F.; Ruiz Bikandi, U. (koor): *Plurilingüismo y Educación en el País Vasco.* XV Cursos de Verano y XIII Cursos Europeos de la UPV/EHU, Donostia.

12. ESOL probaren 7. maila, Europako Kontseiluaren Erreferentzi Marko Europar Bateratuaren B1 mailaren parekidea da.

13. MUÑOA, I. (2003): "Eleanitz-English: Gizarte Zientziak ingelesez". *BAT, Soziolinguistika aldizkaria, 49. zkia,* SEI, Donostia, 79-97 or.

14. Ikus, GARAGORRI, X. (2000): "Eleaniztasun goiztiarrari bai, baina ez edonola". In *Hezkuntza eleaniztunerako bide berriak.*

Elebitasunaren planteamendutik eleaniztasunera aldatzeak, normala den bezala, berrikuntzari buruzko kezka sortu zuen. Kezkarik nagusiena zen ez ote zuen hizkuntzen nahasketa ekarriko eta ez ote zen euskararentzat kaltegarria izango. Kezka horiek argitzeko era bakarra ikasleen emaitzak ebaluatzea zen eta horixe egin da proiektuan 1991-92an lau urterekin hasi ziren ikasleak ebaluatuz, urtez-urte, 2002-03an derrigorrezko irakaskuntza bukatu arte.